

ZEINTZUK DIRA GURE GUSTUKO KIROLAK? - (5. maila A)

Uztaia da laranja,
kantxa da marroia.
Triplea! sartu dugu
saskian baloia.

Gure taldekideak
zelako kontrola,
txilena bat eginda
sartu dugu gola.

Maillota jantzi eta
gero pirueta,
pilota gora bota
eta txiribuelta.

Tatamian jarrita
zuretzat *ap txagi!*
Apurtu dizkiogu
hortzak lagunari...

Raketa hartu eta
pilotari eman,
tanto egin ostean
txaloak eraman.

Beroketa ondoren
bi patinak jantzi,
pistan bueltak ematen
eta dantzan hasi.

NOTAK? - (5. maila B)

Gaia ondo ikasi
eta gero BIKAIN,
urte osoan gaude
boletinaren zain.

Azterketa batean
lortu dugu HAMAR,
eta gaur gutxienez
ez dugu egin negar.

Amatxuk bota digu
sekulako bronka,
TXARRA izan delako
gizarteko nota.

Ondo ikasi behar
edo gero GUTXI,
eta andereinoak
guri irakatsi.

Gaur egin dugun froga,
bai, izan da zaila,
errazagoa izan zen
hirugarren maila...

Inmak agindu digu:
gizarte ikasi!
Gu oraindik ez gara
irakurtzen hasi...

MATEMATIKA ORDUAN - (5. maila B)

Klasera ailegatu,
mahaietan karpeta,
ondoren badauzkagu
mila buruketa.

Goxokiak banatzen
maten gaude eta
eragiketak egin:
hau da zatiketa.

Geometria lantzen,
orain prest gaudela,
batek beti galtzen du
klaseko erregela.

Sarri urduri gaude
nota onaren zain,
azterketa honetan
lortu dugu *bikain!*

Kalkulagailua dago
kutxan aspertuta
eragiketa buruz
egiten dugu ta.

Dena jasotzen dugu
amaitzeko orduan,
ta bakarrik ditugu
jolasak buruan.

GURE KEXAK ETA PROPOSAMENAK - (5. maila C)

Gure klasean daude
mila azterketa,
eta gainera daude
pila ariketa.

Gure eskolan daude
zahartuta komunak,
inoiz ez gara sartzen
batera lagunak.

Beti esaten dute
asko ikasteko,
ez dugu denborarik
gurea egiteko.

Oso gogorak dira
ikasleen aulkiak,
mugikorrek direnak
dira egokiak.

Ikasleok nahi dugu
patioan bankua,
gure harmaila dago
super izoztua.

Eskolara etorri
amama ta aitite...
Janaria prestatzen
oso ondo dakite!

KIROLAK - (5. maila D)

Oso dibertigarri
da SASKIBALLOIA,
saskian sartzen dugu
gomazko baloia.

Asko dantzatzen dugu
DANTZA MODERNOAn,
eta gaurko klasean
mina dut besoan.

TENISeko taldean:
pilota, raketa,...
Kopa irabazteko
pilotan arreta.

PIN-PONen jolasteko
eskuan dut pala,
guztiok jolasteko
mahaia zabala.

Asteazkenean goaz
beti GIMNASIAra,
asko jolasten gara
harrapaketara.

WATERPOLOAn ona
da sartzea gola,
ostikada oinean
ezin da inola.

NOLAKOAK DIRA GURE LAGUNAK? - (5. maila D)

Beti niri laguntzen
etxeko lanetan,
gero gordetzen ditut
klaseko karpetan.

Aspertuta banago
ta ezer egiteko
lagunekin hitz egin
gero geratzeko.

Mina hartzen badugu,
lagunak laguntzen:
benda jarri ta gero
hobeto sentitzen.

Kirola eginda gero
aurkitzen da plaza:
lagunekin jolasten
denok ondo pasa!

Oso triste bagaude
lagunek babestu,
ondoren alaitzeko
txistek kontatu.

Lagunak onak dira,
beti ondoan daude,
kalean edo etxean
elkarrekin gaude.

6.AKO JATORRAK GARA - (6. maila A)

6.Ako jatorrak gara,
oso guapoak gainera.
Zure gelara etorri gara
gauza batzuk eskatzera.

Guk eskailera mekanikoak
nahi ditugu igotzeko,
baita ere nahi dugu txirrista
denak jeitsi ahal izateko.

Jantokiko menua nahi dugu
aldatu guztiz, zeharo,
horren ordeztu buffeta nahi dugu
eta horrela goxoago.

Ostiraletan baloia utzi,
mesedez, gustatzen zaigu,
bizirik irauteko baloia
bai edo bai behar dugu.

Saioak luzatu nahi ditugu
gure burua hobetzeko,
azterketekin eta fitxekin
azkarragoak izateko.

Jolas ordua laburra denez
luzatu egin behar da,
20 minutu gehiago gehitu
ta pozik egongo gara.

ESPAZIOAN - (6. maila B)

Lurretik joaten da
gure astronauta,
Martera iristeko
kohetea dauka.

Pelikulan bezala
ikusi du ET,
eta eman dizkio
hamabi donete.

Handik ikusi ahal du,
polit, eguzkia,
suaz inguratua
dagoen guztia.

Alienigenak bizi
dira ilargian,
begi ninia ikusten
da haien begian.

Azaltzen direnean
izar iheskorrak,
desioa eskatzen
topatu altxorrak.

20:30ak eta
astronauta dator,
etxera bueltatzeko
hegan bizkor-bizkor.

ARRIGORRIAGAKO HAURRAK GARA - (6. maila C)

6. Cko umeak gara,
gauzak eskatzera gatoz,
espero dugu bertso hauekin
zuek egotea ados.

Teknologia hobetu eta
gauza batzuk nahi ditugu,
ordenagailuak eman edo
protesta egingo dugu.

Ordenagailu berriak behar,
oso txarto doaz eta,
hobeto hartzen badugu goiko
institutoko *tableta*.

Mesedez eskatzen dizuegu
Ipad bat guk izatea,
ez zaigu inporta ona bada,
erosi oso merkea.

Tizazko arbela aldatzea
da gure proposamena,
errotulkiekin idaztea
da guk gustuko duguna.

Mahai azpian nahi dugu apala
fitxak gorde ahal izateko,
espero dugu hori lortzea
mahaiak ondo ordenatzeko.

Arrigorriagako haurrak gara
hemen gaude eskatzeko,
ostiraletan pilota atera
patioan jolasteko.

Ordenagailuak ekarri nahi,
koadernoak beharrian,
motxilan pisua txikitzea
gustuko dugu eskolan.

SARE SOZIALAK - (6. maila D)

Beti dugu beteta
argazkiz *Instagram*,
eta bideo batean
"atsegin dut" eman.

Oso famatua da
gure *Influencerra*,
ta barregarriena
izaten da *Erra*.

Postureoan dago
haien lagun mina,
eta haren *historia...*
Nik daukat berdina!

Historiak pasatzen
mina begietan,
eta nire amonak
eman dit kopetan.

Klaseko *Whatsappean*
bidali *stickerra*,
Alainek bidali du
sticker ederra.

Twitterrean idatzi
komentarioak,
batzuk brometan dira
besteak serioak.